

ARETXABALETAN OMENALDIA

Joan dan Abendu'ko 14'an, ospakizun eder bat egin zan Aretxabaletan, su-izkillatutako Peña'tar Jesus idazlearen oroimenez.

Oso ondo egon ziran ospakizunaren bitartez ikusi genduzanak, baiña zori txarrez, oso labur eta durundi gutxi-koa, ainbeste merezi dauan Josu Peña'k, Euskal Erriaren-tzat guztiz ezaguna izan bear daualako eredu izateko.

Ospakizuna, Aretxabaletako Udal-Etxe zaarrean bete zan, eta egia esanda, gela artan ez zan egon lekurik ainbeste Atxabal'dar eta kanpotik joan zira-ntzat.

Maia, Gipuzkoa'ko Aolkularia, Aretxabaleta'ko Alkatea, Lenizbarrutia'tar Lorea Gipuzkoa'ko Aldun-Etxean Ikastolen arduraduna dana eta bere aita Peña'tar Jesus'en lagun aundia izan zana, Atxa'tar Jesus Iruña'ko San Fermin ikastola-ren zuzendaria izan zana eta Paña'tar Jesus'en lagun miña, Peña'tar Lorentzo Peña'tar Jesus'en anaia, eta Latxaga Jaunak bete eben.

Danak mintzatu ziran Peña'tar Jesusi buruz: beren Abertzaletasunagaitik, eta Gipuzkoa'ko Aolkulariak bai Aretxabaleta'ko Alkateak, olako giza-semeak nola jasten daben curen berotasunarekin Erri bat, Lurralde eta asken baten Euskalerrria, Euskadigaitik eduki eben Nortasunezko Abertzaletasuna, indar guztia-kaz arduratsu ta maitasunez beterik, curen biziak Euskadiren altsoan emonarte.

Baiña danez gain Peña'tar Jesus'en izaeraren zeaz-kuntza goxo-goxo eta edertasunean egin ebana Latxaga Jauna izan zan. Badauka arrazoi naikoa ori eta gauza azkoz geiago egiteko dakian guztiaz: Euskerazaintza tal-deak idatzia dan liburua "36'ko gudaldian su-izkillatuta-ko Euskal Idazle Gazteak" argitaratu barik dagoana egite-ko, bera izan dalako zuzendari eta langillerik aundiena.

A ta guztiz ere omenaldiko batzarretik urten gintza-nean, ni lasaitu barik urten nintzan, zezeren egarriaz urten nintzalako. Kanean, Aretxabaleta'ko Alkatea, Latxa-ga, Lourdes nire emaztea eta ni alkartuta geratu giñanean, Latxaga'ri esan neutson ni arduratuta itzi ninduan gauza

zer izan zan: Pare-gabeko Euskal-gazte auei guztiai! "EZ DAUTSIELA IRAKATSI ESPAINA GORROTATZEN, EUSKADI MAITATZEN IRAKATSI DAUTSIELA" esaten ebala; eta ori bakarrik naikoa dala eredu lez guk artzeko, or! gaudelako: Nortasunaren ulermena bete ezi-nik, Abertzal ekintzako lanetan buruz-bera gabiltzalako

alkartu ezinik, ELBURUA'ri begitu barik! taldeen arrotasu-nera begituten gaudelako, eta asken baten "NORBEREN ARROTASUN UZTELA'ri".

Ori zan nik ikusi nebana ezean geratu zana ospakizun ortan

E U R E N
ABERTZALETASUNA
ELBURUA'ri BEGIRA EGON
ZALA, EUREN IZAERAK
edo NORTASUNAK
KONTUAN EUKI GABE,
EUREN NORTASUNEZKO
INDARRAKAZ, BATERA,
BULTZ EGITEN EBELAKO
EUSKADI ASKATU
DAITEN".

Ospakizun ederra izan zan benetan, mamintsu eta berota-sun aundiagaz azalkekatuta, Peña'tar Jesus'en bizi laburra baiña luzca Abertzaletasunaren ekintza gaitik argitua.

Amaieran Jesus'en fami-liak, liburu txukun eta polit bategaz oparitu ginduzan ber-tan egon giñan guztiak. Baiña nire ustez, gauza bi onein zorrean geratu zala ere bai: Euskadi osorako izan bear zan ospakizuna, Aretxabaletan

bakarrik geratu zan eta gaiñera aldizkaritako berri-idazle barik. Eta bigarrena: ez zala azpian marratu edo kakotx-artetu (entrecollar), guretzat benetako eredu izan bear dana "EUREN ABERTZALETASUN AUNDIA BETI ELBURUA'ri JAINKOA'ri, EUSKADI EUREN LOTSAGIZUNEZKO ARDURA NAGUSIENETIK BEGIRA EGON ZALA".

Uste dot, bete egingo dirala akatz txiki-aundi oiek, liburua edo Euskerazaintza'ren aldizkaritan argitaratu egiten dan aurkezpenean, gure Abertzaletasunezko ekin-tzak zuzentzeko, bear-bearrezkoak diranak EUSKADI ASKATZEKO.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2001'ean URTARRILLA'ren 5'an

